

OHIKO GALDERAK – N LAGUNTZA ETA N JARRAIPENA (3 urtetik beherako adingabea zaintzeko lan-eszedentzian edo 12 urtetik beherako adingabea zaintzeko lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak)

1- Laguntza eskatzeko eskubidea dut?	2
2- Zer baldintza bete behar ditut laguntza jasotzeko?	2
3- Autonomia naiz, jaso al dezaket laguntza?	2
4- Nola eskatu behar dut laguntza?	2
5- Noiz aurkez dezaket eskabidea lehendabiziko aldiz?	3
6- Noiz aurkez dezaket seme edo alaba beragatik laguntzaren jarraipena?	3
7- Zer epe daukat laguntza eskatzeko?	3
8- Zenbat denbora egon behar dut lanaldi-murrizketan edo eszedentzian laguntza jasotzeko?	4
9- Zer egoeratan ez dut egon behar 59 egun jarraian eszedentzian edo murrizketan?	4
10- Alaba edo seme bat baino gehiago daukat, zeinengatik eska dezaket laguntza?	6
11- Non aurkez dezaket eskabidea?	6
12- Zenbat denboran jaso dezaket laguntza? Ba al dago egun-mugarik?	7
13- Ez ditut agortu nire lehenengo semeagatik diruz lagundu daitezkeen egunak, eta beste alaba bat izan dut. Erabil ditzaket kontsumitu gabeko egunak nire alaba berria zaintzeko? ...	8
14- Egin al dezaket eskabidea ordezkari baten bitartez?	8
15- Laguntza-eskaera bat aurkeztu nuen, eta orain errekerimendu bat jaso dut. Zer egin behar dut?	9
16- Eszedentzian egon naiz eta gero lanaldi-murrizketa bat izan dut. Eszedentzia eta murrizketarako laguntza eskaera berean eska ditzaket?	9
17- Murrizketa-ehunekoak aldatu ditut. Eskabide bat egin behar al dut horietako bakoitzeko?	9
18- Nola jasoko ditut nire eskaerarekin lotutako jakinarazpenak?	9
19- Nola jakin dezaket zenbateko laguntza dagokidan?	9
20- Zer da familia-unitatea?	11
21- Zer pertsona hartzen dira kontuan nire familia-errenta estandarizatua kalkulatzeko? ...	11
22- Zer gertatzen da nire zerga-datuak kontsultatzeko baimenik ematen ez badut?	12
23- Ez nuen errenta-aitorpenik aurkeztu eskatutako zergaldian. Zer egin behar dut?	12
24- Noiz jasoko dut laguntza?	12
25- Bateragarriak al dira laguntza hauek beste batzuekin?	12
26- Nire bikotekideak eta biok aldi berean eska dezakegu laguntza?	13
27- Laguntza gisa jasotako zenbatekoak errenta-aitorpenean sartu behar al ditut?	13
28- Non lor dezaket IDCa?	13
29- Banandua edo dibortziatua naiz eta laguntza eskatu nahi dut. Nola eragiten dit?	13

30- Nire bikotekidearengandik banandu naiz eta jada ez naiz nire semearekin bizi. Laguntza eskatzen jarrai dezaket?	14
31- Nola egiazta dezaket guraso bakarreko familia-unitate bat osatzen dudala?	14
32- Guraso bakarreko familia gara, ba al dut onurarik horregatik?	14
33- Nire semeak edo alabak desgaitasunen bat badu, ba al dut laguntza bereziren bat jasotzeko eskubiderik?	15
34- Nire semea edo alaba erditze, adopzio, tutoretza edo harrera anizkoitzaren emaitza bada, ba al dut laguntza bereziren bat jasotzeko eskubiderik?	15
35- Eska al diezadakete jasotako laguntza itzultzeko?	15
36- Zer gertatzen da laguntzak kudeatzen dituen organoak ezin badu beharrezko informazioa lortu beste administrazio batzuegandik?	15

1- Laguntza eskatzeko eskubidea dut?

Laguntzak jaso ahal izango dituzte besteren konturako langileek edo kooperatiba-sozietateetako bazkideek, baldin eta seme-alabak zaintzeko gutxienez % 33ko lanaldi-murrizketa badute edo eszedentzian badaude.

2- Zer baldintza bete behar ditut laguntza jasotzeko?

1. Zaintza eta jagoletza izatea eszedentziak edo murrizketak irauten duen bitartean eta laguntza eskatzen den egunean.
2. Diruz lagundu beharreko jarduketan zehar eta eskaeraren egunean laguntza eskatzen duen semearekin edo alabarekin erroldatuta egotea (zaintza partekatuan izan ezik, adingabea beste gurasoarekin erroldatuta badago).
3. Eskaera egin aurreko urtean etenik gabe EAEn bizi zela, edo 5 urtez jarraian azken 10 urteetan.
4. Seme-alabak zaintzeko gutxienez 59 egunez jarraian eszedentzian edo lanaldi-murrizketan egon izana (ikus salbuespenak 9. galderan).

3- Autonomoa naiz, jaso al dezaket laguntza?

Ez, autonomoen araubide orokorrean alta emanda dauden pertsonak ezin dute laguntza hauen onuradun izan, bazkide kooperatibistak direnak izan ezik.

4- Nola eskatu behar dut laguntza?

Lehendabiziko eskaera egitean hasierakoa dela adierazi behar duzu eta, ondoren, aldi behin eskatu behar duzu laguntza, eszedentzia edo murrizketa amaitu arte.

Bi aukera daude eskaeraren barruan: hasierakoa edo jarraipenakoa.

Hasierako eskaeraren laukitxoa markatu behar duzu, baldin eta:

- Laguntza eskatzen duzun lehen aldia bada.
- Beste seme edo alaba bat izan baduzu.

Gainerako kasuetan, jarraipeneko eskaeraren laukitxoa markatu behar duzu (hau da, aldez aurretik eskatu duzu dirulaguntza seme edo alaba horrengatik).

5- Noiz aurrez dezaket eskabidea lehendabiziko aldiz?

Laguntza-eskaera aurrez dezakezu egutegiko 59 egun jarraian gutxienez eszedentzian edo lanaldi-murrizketan egon zarenean (ikus salbuespenak 9. galderan).

6- Noiz aurrez dezaket seme edo alaba beragatiko laguntzaren jarraipena?

Aurretik laguntza hau eman badizute, gutxienez 4 hilabete itxaron beharko duzu emandako azken laguntza eskatu zenuenetik. Ez da beharrezkoa 4 hilabete horiek itxarotea zure eszedentzia edo lanaldi-murrizketa amaituta badago.

Adibidez:

2024ko urtarrilaren 1ean dirulaguntza eskatu eta eman egin zitzaizun. Hurrengo eskakizuna 2024ko maiatzaren 2tik aurrera egin ahal izango duzu (behin 4 hilabete igaro direnean).

7- Zer epe daukat laguntza eskatzeko?

Kontuan izan eskaera egiten duzun egunetik gehienez 365 eguneko dirulaguntza jaso dezakezula, atzera zenbatuta; beraz, murrizketa edo eszedentzia hasi zenetik 365 egun igaro baino lehen eskatu behar duzu laguntza.

Adibidez:

Eszedentzia edo murrizketa 2025eko urtarrilaren 1ean hasi duzu. Beranduenez 2026eko urtarrilaren 2an eskatu beharko zenuke laguntza. 2026ko urtarrilaren 7an aurkeztuko bazenu, 2025eko urtarrilaren 6tik 2026ko urtarrilaren 6ra soilik lagunduko litzateke diruz (eskaera egin aurreko 365 egunak). Hau da, 2025eko urtarrilaren 1etik 5era bitarteko egunei dagokien laguntza galduko zenuke.

8- Zenbat denbora egon behar dut lanaldi-murrizketan edo eszedentzian laguntza jasotzeko?

Laguntza kobratu ahal izateko, egutegiko 59 egunez gutxienez egon beharko duzu eszedentzian edo lanaldi-murrizketan. Oro har, 59 egun horiek elkarren segidakoak izan behar dute, nahiz eta salbuespenak dauden: oporraldiak, grebak, aldizkako kontratu finkoak, ABEEE (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea) eta soldatarik gabeko baimenak.

9- Zer egoeratan ez dut egon behar 59 egun jarraian eszedentzian edo murrizketan?

1. Oporraldiak:

- ekainaren 1etik irailaren 30era
- abenduaren 21etik urtarrilaren 9ra
- Ostegun Santuaren aurreko astelehenetik Pazko Astelehenaren ondorengo igandera arte.

Aldi horietan ez da beharrezkoa izango lanaldi-murrizketan edo eszedentzian egotea 59 egun jarraian. Opor-egunak elkarren artean batu eta 59 egunera irits litezke, modu etenean.

Oporraldi guztiak batu ondoren 59 egunera iristen ez badira, beste edozein aldiri gehitu ahal izango zaizkio, baldin eta azken urtean (eskaera egin aurreko 365 egunetan) diruz lagundu ahal bada (59 egun baino gehiago murrizketan/eszedentzian).

Adibidez:

- Aste Santuko bi asteetan (14 egun) eszedentzian egonez gero, eta ondoren, uztailaren 15etik abuztuaren 31ra (48 egun), bi aldien baturarako laguntza emango zaio; hau da, 62 egun.
- Tarte hauetan eszedentzian egonez gero:
 - Abenduaren 21etik urtarrilaren 19ra (29 egun misto: zati bat oporrek izango direnak eta beste bat ez dena opor izango)
 - Uztailaren 1etik 10era (10 opor-egun)
 - Abuztuaren 1etik 31ra (31 opor-egun)

Guztira, 70 eguneko eszedentzia izango litzateke, eta horietatik 61 oporretan izango lirateke. 61 opor-egun bakarrik lagunduko dira diruz. Ez

da diruz laguntzen urtarrilaren 10etik 19ra bitartean, ez baitira oporrak eta ez baita 59 eguneko aldia.

- Egoera honetan egonez gero:

- Eszedentzia 2023-07-31tik 2023-09-15era (47 opor-egun)
- 2023/10/01etik 2024/01/31ra bitarteko murrizketa (123 egun misto)

Guztira 170 egun izango lirateke, eta horietatik 66 oporretan emango lituzke. Dena lagunduko litzateke diruz, aldi mistoak, berez, 59 egun baino gehiago batzen dituelako eta oporrak gehitu dakizkiokeelako.

2. Eskolara egokitzea:

Diruz lagun daitekeen aldia da (oporrak bezala), baina berez ez da inoiz 59 egunera iritsiko. Aurreko edo ondorengo aldi bati gehitu ahal izango zaio (eskaera-dataren aurreko 365 egunen barruan), baldin eta jada diruz lagun badaiteke (59 egunera iristen bada).

3. Greba:

Eszedentzia- eta murrizketa-aldi bateko greba-egunak ez dira diruz lagunduko. Hala ere, kontuan hartuko dira laguntzak eskatzen dituen 59 egun jarraituen baturarako.

Adibidez:

Eszedentzian zaude urtarrilaren 1etik otsailaren 28ra. Aldi horretan, greba egin duzu urtarrilaren 7tik 15era.

Guztira 50 eguneko laguntza emango litzaioke, bi zatitan banatuta, nahiz eta epealdietako bat ere ez den iristen gutxienerako 59 egunera.

- Urtarrilaren 1etik 6ra (6 egun)
- Urtarrilaren 16tik otsailaren 28ra (44 egun)

4. ABEEE eta soldatarik gabeko baimena:

Ez dira diruz lagunduko soldatarik gabeko baimen-egunak ezta ABEEE epeak ere (osoa zein partziala). Gainera, ez dira zenbatuko laguntzak eskatzen dituen 59 egun jarraituen baturarako.

Adibidez:

Murrizketa egoeran zaude urtarrilaren 1etik martxoaren 8ra. Aldi horretan soldatarik gabeko baimena hartzen duzu urtarrilaren 7tik 15era.

- Urtarrilaren 1etik martxoaren 8ra: 66 egun
- Urtarrilaren 7tik 15era: 8 egun

Soldatarik gabeko baimen-egunak ez direnez kontuan hartzen 59 egun jarraituetarako, ez litzateke laguntzarik emango, 58 egun baino ez bailirateke murriztuko.

5. Aldizkako kontratu finkoak:

Aldizkako kontratu finkoen kasuan (kontratu mugagabeak baina aldizkakoak edo denboraldikakoak), azken urteko (eskaera egin aurreko 365 egunak) murrizketa- edo eszedentzia-aldiak batu ahal izango dira, eskatzen den 59 eguneko gutxienekora iristeko.

Esaterako:

Murrizketa egoran zaude martxoaren 1etik 31ra. Apirilean ez duzu lanik egiten. Maiatzean murrizketa hartu zenuen 1etik 30era. Guztira, 61 egunetarako laguntza emango litzaizuke (murrizketan dauden bi aldien batura, nahiz eta jarraituak ez izan).

10- Alaba edo seme bat baino gehiago daukat, zeinengatik eska dezaket laguntza?

Laguntzak seme edo alaba gazteenarengatik ematen dira. Jaiotza berri bakoitzarekin etapa berri bat hasten da laguntzen ondorioetarako.

11- Non aurkez dezaket eskabidea?

1. Online:

Eskabidea elektronikoki aurkez dezakezu esteka [honetan](#). Horretarako, identifikazio elektronikorako bitarteko bat eduki behar duzu. Identifikazio elektronikorako bitartekoei buruzko informazio gehiago esteka [honetan](#).

2. Aurrez aurre:

- Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoak - [ZUZENEAN](#)
- Honako erakunde hauen erregistroetan:
 - Udalak – toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.
 - Autonomia-erkidegoetako administrazioak.

- Estatuko Administrazio Orokorra.
- Sektore publiko instituzionala.

Eskabidea beteta eraman beharko duzu, bai eta beharrezko dokumentuak ere, eta kode hauek adierazi:

- Erregistro-erakundea: O 00016303 (lehen karakterea O letra larria da)
- Izapidetze-unitatea: A 16034216

■ [Correos](#)-eko posta-bulegoetan:

Eskabidea beteta eraman beharko duzu, bai eta beharrezko dokumentuak ere, eta ORVE kode hauek adierazi:

- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa: A 16034216.
- Erreferentzia: 0078902.

■ Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko [39/2015](#) Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako gainerako tokietan.

12- Zenbat denboran jaso dezaket laguntza? Ba al dago egun-mugarik?

Bai, honakoak:

	Seme/alaba bakoitzeko			Familia-bizitza osoa		
	EMAKUMEA	GIZONA	BIKOTEA	EMAKUMEA	GIZONA	BIKOTEA
ESZEDENTZIA	548	900	900	1.460	2.190	2.190
MURRIZKETA	1.350	2.700	2.700	3.900	7.800	7.800

Beste seme edo alaba bat jaiotzeak etapa bat ixtea eta berri bat hastea dakar, mugen ondorioetarako. Hau da, jaiotza berri batekin seme-alaba bakoitzeko dagozkion egunak agortu ez baditu ere, kontagailua zeron jartzen da.

Kontuan izan bikote bakoitzeko egun-muga bat dagoela. Bi gurasoek seme edo alaba beragatik laguntza eskatzen badute, horietako bati diruz lagundutako laguntza-egunek bestearen egun-mugari eragiten diote.

Adibidez:

Emakume batek 100 eszedentzia-egun eskatzen baditu, gizonak gehienez ere 800 egunetarako jaso dezake laguntza (gizonari legokiokeen 900 egunei emakumeak gozatutako 100 egunak kendu beharko litzaizkioke).

Gainera, familia-bizitza osoaren mugek pertsona edo familia batek bere bizitzan zehar lor ditzakeen gehieneko laguntza-egunei egiten diete erreferentzia (seme-alaben kopurua edozein izanik ere). Muga absolutuak dira.

Adibidez:

Emakume eskatzailea naiz. Nire lehenengo semearekin 1.350 egunez jasotzen dut murrizketa-laguntza. Baita bigarren semearekin ere. Nire hirugarren semearekin 1.200 eguneko laguntza jaso ahal izango nuke gehienez (3.900 egunei dagoeneko gastatu dudana kendu behar zaie). Une horretatik aurrera, seme-alaba gehiago izan arren, ezin izango dut laguntza eskatu, familiaren gehieneko mugara iritsiko nintzateke eta.

Etaparen berean eszedentzia eta murrizketa hartzen bada, kontuan hartuko da eszedentzia-egunak bi murrizketa-egun gisa zenbatuko direla.

Adibidez:

Eskatzaile gizona naiz. 1.000 eguneko murrizketagatik eta seme edo alaba beragatik 300 eguneko eszedentziagatik laguntza ematen didate. Murrizketagatik erabilgarri dauden egun guztietatik 1.600 egun gastatuko nituzke (1.000 murrizketa + 300 x2 eszedentziagatik).

Salbuespen batzuetan laguntza-egunen beste muga batzuk aplikatzen dira:

- Zaintza partekatua: ikusi 30. galdera
- Guraso bakarra izatea: ikusi 32. galdera
- Desgaitasuna: ikusi 33. galdera
- Erditze, adopzio, tutoretza, harrera anizkoitzak: ikusi 34. galdera.

[13- Ez ditut agortu nire lehenengo semeagatik diruz lagundu daitezkeen egunak, eta beste alaba bat izan dut. Erabil ditzaket kontsumitu gabeko egunak nire alaba berria zaintzeko?](#)

Ez, beste seme edo alaba bat jaiotzen den bakoitzean laguntza berri bat hasten da eta aurreko kredituak galdu egiten dira.

[14- Egin al dezaket eskabidea ordezkari baten bitartez?](#)

Bai, ordezkari baten bidez aurkeztu ahal izango dira eskabideak. [Dokumentu hau](#) behar bezala beteta eta bi alderdiek sinatuta aurkeztu behar duzu (edo ordezkari [ahalordetzen erregistro elektronikoan](#) inskribatu).

15- Laguntza-eskaera bat aurkeztu nuen, eta orain errekerimendu bat jaso dut. Zer egin behar dut?

Errekerimenduan adieraziko zaizu zer dokumentu aurkeztu behar dituzun. Horretarako, "Nire karpeta" erabil dezakezu (identifikazio elektronikoaren bidez), edo aurrez aurre herritarren edozein bulegotan (ikus 11. galdera).

Akatsak zuzentzeko epea igarota (10 egun balioudun jakinarazpenaren biharamunetik), ez baduzu eskatutako dokumentazioa aurkezten, eskaeran atzera egin duzula ulertuko da.

16- Eszedentzian egon naiz eta gero lanaldi-murrizketa bat izan dut. Eszedentzia eta murrizketarako laguntza eskaera berean eska ditzaket?

Bai. Espediente berean eska ditzakezu bi epealdiak, ez da beharrezkoa egoera bakoitzarengatik eskaera bat egitea.

17- Murrizketa-ehunekoak aldatu ditut. Eskabide bat egin behar al dut horietako bakoitzeko?

Ez, espediente berean eska dezakezu aldi osoa, murrizketa-aldaketak gorabehera. Kontuan izan aldi bakoitzeko dagokion IDCa aurkeztu beharko duzula (ikus 28. galdera).

18- Nola jasoko ditut nire eskaerarekin lotutako jakinarazpenak?

Eskaera egiteko unean, komunikazioak jasotzeko bidea hauta dezakezu:

- Telematikoa: edozein jakinarazpen kontsultatu ahal izango duzu "[Nire Karpeta](#)" egoitza elektronikoan. Sartzeko, [identifikazio elektronikorako bitarteko](#) bat beharko duzu.
- Postala: gutun ziurtatu bat jasoko duzu eskabidean adierazitako helbidean. Gainera, jakinarazpena "[Nire karpeta](#)" egoitza elektronikoan jarriko da eskuragarri.

Komunikazio telematikoen kasuan, aldezturik e-mail edo SMS bidez abisu bat jaso ahal izango duzu, zure karpetan sartu eta jakinarazpen berri bat jaso behar duzula ohartaraziz. Adi! Abisu hau informazioa emateko baino ez da, eta ez da jakinarazpena.

19- Nola jakin dezaket zenbateko laguntza dagokidan?

Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aldagai hauek hartzen dira kontuan:

- Familia-errenta estandarizatua (FEE)
- Kontratu mota (lanaldia)
- Laguntza mota: murrizketa edo eszedentzia
- Murrizketaren kasuan, murrizketaren ehunekoak
- Diruz lagundu beharreko egun-kopurua

Familia-errenta estandarizatua: zure familia-errenta estandarizatua kalkula dezakezu esteka honetan.

Errentari dagokionez, bi laguntza-tarte daude:

- FEE 20.000 € edo handiagoa.
- FEE 20.000 € baino gutxiago.

Lanaldi-murrizketaren kasuan, hiru tarte daude, murrizketaren ehunekoaren arabera:

- % 33tik % 39,9rako murrizketa
- % 40tik % 44,9rako murrizketa
- % 45eko murrizketa edo handiagoa

Koadro honetan ikus ditzakezu FEEko tarte bakoitzari eta murrizketa-ehunekoari dagozkion zenbatekoak.

Kontzeptua	FEE ≤ 20.000 €	FEE > 20.000 €
Eszedentzia	3.500 €	2.942 €
Murrizketa (% 33tik % 39,9ra)	2.200 €	1.819 €
Murrizketa (% 40tik % 44,9ra)	2.500 €	2.140 €
Murrizketa (% 45 edo handiagoa)	2.800 €	2.354 €

Kontuan izan zenbateko horiek lanaldi osoko (% 100) eta urtebeteko (365 egun) kontratueterako laguntzari dagozkiola.

Dagokizun laguntza kalkulatzeko, zure FEE tarte eta eszedentzia/murrizketa identifikatu behar dituzu aurreko taulan, eta zure lan-kontratuaren ehunekoarekin biderkatu. Eraitza 365 egunekin zatitu behar da, eta, ondoren, dirulaguntza dagokion egun-kopuruarekin biderkatu.

[Esteka honetan](#) zure laguntza kalkulatu ahal izango duzu.

Adibidez, lanaldiaren % 80ko lan-kontratu baduzu eta 90 egunez eszedentzian egon bazara, kalkuluak honako hauek izango lirateke:

- 20.000 € edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatu batentzat:

$((3.500 \text{ €} \times \% 80) / 365 \text{ egun}) \times 90 \text{ egun} = 613,70 \text{ €}$

• 20 000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatu batentzat:

$((2.942 \text{ €} \times \% 80) / 365 \text{ egun}) \times 90 \text{ egun} = 580,34 \text{ €}$

Gogoratu zenbatekoa % 30 handitzen dela kasu hauetan:

- Guraso bakarreko familiak
- Familia ugariak
- Genero-indarkeriaren biktimaren bat duten familia-unitateak
- II. edo III. graduako mendetasuna duen kideren bat duten familia-unitateak, edo % 50eko desgaitasuna edo handiagoa duen kideren bat duten familia-unitateak.

Familia-unitatean egoera horietako bat baino gehiago gertatzen badira, % 30eko igoerak metatu egingo da.

20- Zer da familia-unitatea?

Familia-unitate hartzen da honako hauek osatzen dutena:

- Eskatzailea.
- Ezkontidea edo harekin bizi ohi den bikotekidea (nahiz eta izatezko bikote gisa inskribatuta ez egon eta ezkondu ez izan).
- Etxebizitza berean bizi diren adingabeak (errolatuak), baldin eta haien zaintza (esklusiboa edo partekatua) zuzentzat, haren ezkontidearentzat edo normalean harekin bizi den bikotekidearentzat bada.
- Banantze- edo dibortzio-kasuetan, berretsitako hitzarmenik edo ebazpen judizialik ez badago, bi gurasoak familia-unitateko kide izango dira ondorio guztietarako.
- Zaintza partekatuko kasuetan (ebazpen judizial bidez berretsia), dirulaguntza jasotzeko eskubidea ematen duen semea edo alaba familia-unitateen parte izango da ondorio guztietarako, betiere gurasoetako batekin eroldan agertzen bada.

Familia-unitatea honako hauetarako hartzen da kontuan:

- Familia-errenta estandarizatuaren kalkulua (ikus 21. galdera).
- Laguntzaren zenbatekoa % 30 handitzen duten egoerak (ikus 19. galdera).
- Laguntza-egunen mugetarako (ikus 12. galdera).

21- Zer pertsona hartzen dira kontuan nire familia-errenta estandarizatu kalkulatzeko?

- Familia-unitateko kideak (ikus 20. galdera).
- Guraso bakarreko familietan, bikote bat badago (ezkonduta ez egon arren eta EAEn izatezko bikote gisa inskribatuta ez egon arren), kontuan hartuko da familia-errenta estandarizatua kalkulatzeko.

22- Zer gertatzen da nire zerga-datuak kontsultatzeko baimenik ematen ez badut?

Bi aukera dituzu:

- 1- 20.000 eurotik gorako errentei dagokien laguntza jasotzea (gutxieneko laguntza).
- 2- Laguntza eskatu baino 2 urte lehenagoko zergaldiko errenta-aitorpena aurkeztea.

Adibidez: eskaera 2024-05-03an aurkezten baduzu, 2022ko errenta-aitorpena aurkeztu beharko duzu (2023an egindakoa).

23- Ez nuen errenta-aitorpenik aurkeztu eskatutako zergaldian. Zer egin behar dut?

Ogasunaren (edo dagokion aldundiaren) ziurtagiria aurkeztu beharko duzu, laguntza eskatu aurreko 2 urteetan PFEZari egotz dakizkiokeen errenta eta etekin guztiak adieraziz.

Adibidez: 2024an aurkeztutako eskaeretarako, 2022ko ekitaldiko diru-sarrerak aurkeztu behar dira.

24- Noiz jasoko dut laguntza?

Ebazpena jakinarazi eta gehienez ere bi hilabeteko epean egingo da ordainketa.

25- Bateragarriak al dira laguntza hauek beste batzuekin?

Oro har, laguntza hauek bateragarriak dira beste edozein administrazio publikok helburu berarekin emandako beste laguntza batzuekin, betiere laguntzen baturak ez badu gainditzen eszedentziak edo lanaldi-murrizketak onuradunari eragiten dion kostua.

Hala ere, bateraezinak izango dira laguntza hauekin:

1. Guraso bakarreko familietan amatasun- eta aitatasun-prestazioen aldiak lan-eszedentziaren bidez parekatzeko laguntzak (E LERROA).
2. Mendetasuna edo osasun-egoera oso larria duten senitartekoak zaintzeko eszedentzian edo murrizketa-egoeran dauden langileentzako laguntzak (D LERROA).

3. Seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak (Z LERROA). Kasu honetan, salbuespen batzuk daude (102/2022 Dekretua berrikusi).

26- Nire bikotekideak eta biok aldi berean eska dezakegu laguntza?

Bi gurasoek eska dezakete laguntza.

- Aldiak bat ez badatoz: biek jaso dezakete laguntza.
- Aldiak bat badatoz: laguntza aldi berean jaso ahal izateko, biak murrizketa egoeran egon behar dira. Bietako batek eszedentziagatiko laguntza eskatzen badu, beste pertsonak ezingo du laguntza hori jaso aldi horretan.

27- Laguntza gisa jasotako zenbatekoak errenta-aitorpenean sartu behar al ditut?

Laguntza horiek ez dute zergarik ordaintzen PFEZaren ondorioetarako, eta, beraz, ez da beharrezkoa errenta-aitorpenean sartzea.

28- Non lor dezaket IDCa?

Kotizazio-datuen txostena (IDC) zure enpresan eskatu behar duzu.

29- Banandua edo dibortziatua naiz eta laguntza eskatu nahi dut. Nola eragiten dit?

Laguntza eskatzeko, adingabearen zaintza eta jagoletza (esklusiboa edo partekatua) izan behar duzu. Banandutzat edo dibortziatutzat hartzeko, gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak epai judizial bidez berretsi behar dira, ez da baliozkoa izango judizialki berretsi ez den hitzarmen arautzaile bat. Horrek eragina izango du, halaber, familia-errenta estandarizatuaren kalkuluan (kontsultatu 20. galdera).

Kontuan hartu beharrekoak:

- Semeak edo alabak gurasoetako batekin egon behar du erroldatuta. Eskatzailearekin ez bada, "Zaintza partekatuko seme-alaben familia-erroldatzea kontsultatzeko baimena" eranskina aurkeztu beharko da, harekin bizi den gurasoak sinatuta.
- Laguntzaren gehieneko egunak berdinak izango dira bi gurasoentzat, gizona edo emakumea izan: 548 egun eszedentziarako eta 1350 egun lanaldi-murrizketarako.

30- Nire bikotekidearengandik banandu naiz eta jada ez naiz nire semearekin bizi. Laguntza eskatzen jarrai dezaket?

Bai, baldin eta zaintza eta jagoletza partekatuaren ebazpen judizial baten bidez egiazta badezakezu eta laguntzaren gainerako baldintzak betetzen badituzu.

Zaintza eta jagoletza partekatua badago, bi gurasoek eska dezakete laguntza. Semeak edo alabak haietako batekin erroldatuta egon behar du. Beste gurasoarekin erroldatuta egonez gero (ez eskatzailearekin), "Zaintza partekatuko seme-alaben familia-erroldatzea kontsultatzeko baimena" eranskina aurkeztu beharko da, harekin bizi den gurasoak sinatuta.

31- Nola egiazta dezaket guraso bakarreko familia-unitate bat osatzen dudala?

Guraso bakarreko familiatzat hartuko dira:

1. Guraso bat duten familiak
2. Gurasoetako bat hil zaien familiak (alarguntasuna)
3. Beste batzuk: familia uztea, desagertzea...

Egoera horiek honela egiaztatuko dira:

1. Guraso bakarra: zuzenean egiaztatuko da Erregistro Zibilarekin. Datuak ezin badira lortu, familia-liburua edo semearen edo alabaren jaiotza-ziurtagiria eskatuko zaio eskatzaileari.
2. Gurasoetako baten heriotza (alarguntasuna): heriotza-ziurtagiria.
3. Beste batzuk (familia uztea, desagertzea, etab.): dagokion egoera egiaztatzen duen ebazpen judiziala.

Kontuan izan ezkontzen bazara edo EAEn izatezko bikote gisa inskribatzen bazara guraso bakarreko izaera galduko duzula ondorio guztietarako.

Bikotea izanez gero (ezkondu gabe eta EAEn inskribatu gabe), familia-errenta estandarizatua kalkulatzeko soilik hartuko da kontuan, baina guraso bakarreko familiatzat hartzen jarraituko da, laguntzen epeei eta zenbatekoei dagokienez.

32- Guraso bakarreko familia gara, ba al dut onurarik horregatik?

Bai, guraso bakarreko familiek % 30eko gehikuntza jasotzen dute laguntzaren zenbatekoan, eta, gainera, ez zaizkie aplikatzen diruz lagundu daitezkeen gehieneko egunen mugak. Hau da, eszedentzian (semeak edo alabak 3 urte bete arte) edo lanaldi-murrizketan (12 urte bete arte) dagoen aldi osoan jaso dezakete laguntza.

33- Nire semeak edo alabak desgaitasunen bat badu, ba al dut laguntza bereziren bat jasotzeko eskubiderik?

Bai, alabak edo semeak % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila badu, ez zaizkizu egunen mugak aplikatuko. Laguntza hauek jaso ahal izango dituzu:

- Adingabeak 3 urte bete arte, eszedentzian.
- Adingabeak 18 urte bete arte, murrizketan.

Gainera, desgaitasun gradua % 50 edo handiagoa bada, laguntzaren zenbatekoa % 30 handituko da.

34- Nire semea edo alaba erditze, adopzio, tutoretza edo harrera anizkoitzaren emaitza bada, ba al dut laguntza bereziren bat jasotzeko eskubiderik?

Kasu horietan, bigarren seme edo alabatik aurrera laguntza jasotzeko gehieneko egunak handitu egiten dira adingabe bakoitzeko:

- Murrizketan: 320 egun gehiago bikotekidearentzat; horietatik, guraso bakoitzak gehienez 160 egun hartu ahal izango ditu.
- Eszedentzian, 160 egun gehiago bikotekidearentzat; horietatik, guraso bakoitzak gehienez 80 egun hartu ahal izango ditu.

35- Eska al diezadakete jasotako laguntza itzultzeko?

Bai. Dekretuak xedatzen duenez, laguntzaren onuradunek ez badute betetzen dekretuan edo aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzaren bat, ordaintzeko dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea galdu dutela adieraziko da, eta jasotako zenbatekoak gehi dagozkien berandutze-interesak itzuli egin beharko dituztela.

36- Zer gertatzen da laguntzak kudeatzen dituen organoak ezin badu beharrezko informazioa lortu beste administrazio batzuegandik?

Ezin badira espedientea behar bezala ebazteko behar diren datuak eskuratu, errekerimendu bat bidaliko zaio eskatzaileari, beharrezko dokumentazioa aurkez dezan.